

BESTELAKO XEDAPENAK

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

4201

ERABAKIA, 2023ko ekainaren 28koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseiluaren osoko bilkurarena, zeinaren bidez onartzen baita Irakasle eta Ikertzaileen gehigarritzko ordainsari osagarrien urtebeteko deialdia, osagarriak esleitzeko ebaluazioa eskatzeko.

María Pilar Elorrieta Santo Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluko idazkari nagusiak honako hau

ZIURTATZEN DU:

Bi mila eta hogeita hiruko ekainaren 28an bilduta, Gizarte Kontseiluaren berrehun eta hogeita hamargarren osoko bilkurak beherago aipatzen den erabakia hartu zuen aztergai-zerrendako hamaikagarren puntuaz, zeinak honela baitzioen: Irakasle eta Ikertzaileen gehigarritzko ordainsari osagarrien urtebeteko deialdia, osagarriak esleitzeko ebaluazioa eskatzeko.

Lehenengoa.– Onartzea erabaki honi erantsitako UPV/EHUko Irakasle-ikertzaileen Ordainsari Osagarri Gehigarrien urteko deialdia.

Bigarrena.– Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitara ematea erabaki hau eta erantsitako deialdia.

Errekurtsoak.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa betez, jakinarazten da egintza honek administrazio bidea agortzen duela, Unibertsitate Sistemaren martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoaren 38-4 artikulua jaso bezala. Egintzaren auka, errekurtsua jar daiteke bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioan, erabaki hau argitaratzen denetik kontatzen hasita.

Bilbao, 2023ko ekainaren 28a.

Idazkari nagusia,
MARÍA PILAR ELORRIETA SANTOS.

ERANSKINA

URTEKO DEIALDIA, ORDAINSARI OSAGARRI GEHIGARRIAK ESLEITZEKO EBALUAZIOA
ESKATZEKO.**Lehenengoa.**– Deialdiaren helburua

1.1.- Deialdi honen helburua da irakasle eta ikertzaileei ordainsari osagarri gehigarriak esleitzea, haien merezimenduak ebaluatu eta gero. Ebaluazioa egingo da deialdia argitaratzen den unean indarrean dagoen Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Egiatzatzeko Agentziaren ebaluazio protokoloari jarraikiz-

1.2.- Gehigarriko ordainsari osagarriak, berez, metatu daitezkeen hiru mailatan sailkatuko dira, eta tarte progresibo desberdinak izango dituzte. Hain zuzen:

- C maila, Euskal Herriko Unibertsitatean egindako jardun profesionala saritzen duena.
- B maila, kalitatea eta etengabeko hobekuntza saritzeko.
- A maila, bikaintasuna saritzen duena.

1.3.- Hauek arautuko dute deialdi hau: deialdiaren beraren testuak eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen gehigarriko ordainsari osagarriei buruzko urriaren 17ko 209/2006 Dekretuak (64/2011 Dekretuak egindako aldaketekin). Horietan jasota ez dagoenerako, eutsiko zaio Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeari.

Bigarrena.– Aplikazio-esparrua

2.1.- Hauek eska dezakete merezimenduak ebaluatzea:

- a) UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileek, hala funtzionarioek nola administrazio kontratadunek edo lan kontratadunek, baldin eta ez badira zerrenda honetako 2. puntuko artekoak.

2.2.- Honako hauek ezin dute ebaluazioa eskatu:

- a) Aurreko deialdietan ebaluatuak izan direnak eta ebaluatutako aldiaren amaiera datatik 2022ko abenduaren 31ra bost urte igaro ez badira, salbu eta C2 eta B1 mailetarako ebaluazioa eskatzen dutenak.
- b) Agentziarekin kolaboratzen duten irakasle eta ikertzaileek, kanpoan uzten baititu urriaren 17ko 209/2006 Dekretuko hirugarren xedapen gehigarriak, martxoaren 24ko 64/2011 Dekretuak egindako aldaketen arabera.
- c) Martxoaren 4ko 41/2008 Dekretuak, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen ordainsariei buruzkoak, kanpo uzten dituenak.

Hirugarrena.– Eskariak

3.1.- Edozelan ere, eskariak bide telematikoz egingo dira, horretarako jarritako aplikazio informatikoaren bidez, 64/2011 Dekretuaren bitartez aldatutako urriaren 17ko 209/2006 Dekretuko 7.2 artikuluari jarraiki.

Aplikazio informatikoak erraztuko du eskaeraren laburpen bat lortzea. Dokumentu hori modu elektronikoan sinatu beharko du eskatzaileak, eta UPV/EHUko erregistro elektroniko bidez bidali beharko da, prozeduren katalogoan (ordainsari osagarri gehigarriak) <https://egoitza.ehu.eus/eu/catalogo-de-servicios>, deialdi honetan zehaztutako epearen barruan.

Dokumentu hori bidali ezean, eskaria ez da ondo burututzat joko.

3.2.- Eskariak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

3.3.- Unibasq-en alde, ebaluazio-eskubideari dagokion 48,49 euroko tasa ezartzen da; betiere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen 95 bis eta 95 *quinquies* (1/2007 Legegintzako Dekretua) artikuluei jarraiki, zeinak eraldatu baizituen Euskal Autonomia Erkidegoko 2023 urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 15/2022 Legeak, . Tasa horren ordainketa burutu denaren ziurtagiria bidali beharko da aplikazio informatikoak ezartzen duen eran. Ziurtagiri hori aurkeztu ezean, eskaera ez da ontzat emango. Soilik C tartearen esleipena eskatzen dutenek ez dute tasa hori ordaindu beharrik.

Laugarrena.– Espedienteak Unibasq-era bidaltzea

Eskariak Unibasq-era bidaliko dira, balorazio-txostena egin dezan, nahitaezkoa baita, eta, bidaltzerakoan, epe bat ezarriko da. Eskariok agentziara bidaltzen direnean txostena eskatzeko, eten egingo da prozedura ebazteko epea, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22.1.d) artikuluari jarraiki.

Bosgarrena.– Akatsak zuzentzea

Epearen barruan aurkeztutako eskariak betetzen ez dituztenean deialdian ezarritako baldintzak edo baldintzak egiaztatzeko behar den dokumenturen bat aurkeztu ez denean, interesatuari eskatuko zaio akatsa zuzentzeko (hau da, nahitaezkoak diren dokumentuak edo alegatutakoa egiaztatzeko beharrezkoak diren dokumentuak aurkezteko). Horretarako, hamar egun balioduneko epea izango du, zuzenketa egitea eskatzen zaion egunaren biharamunetik hasita.

Seigarrena.– Merezimenduen ebaluazioa.

Behin maila eta tarte bakoitzerako merezimenduak egiaztatuta eta justifikatuta, ebaluatuko dira; horretarako, kontuan hartuko da zer ebaluazio-protokolo duen indarrean Unibasq- Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak deialdia argitaratzen denean.

Edozein kasutan, merezimenduen egiaztapen-dokumentuekin batera, bestelako betekizunak ere bidaliko dira, aplikazio informatikoak ezartzen duen eran. Behin eskariak aurkezteko epea amaituta, eskatzaileek errekerimendua jasoko dute beren merezimenduen egiaztapen-dokumentuak konproba ditzaten, eta adieraziko zaie ezen, hala egin ezean, ez direla merezimendu horiek ebaluatuko.

Zazpigarrena.– Ebazpena

7.1.- Deialdia bi fasetan ebatziko da: aurrena, C mailako gehigarriko ordainsari osagarriak esleituko dira, eta, gero, B,A mailakoak eta unibertsitate eskolako irakasle titular ez-doktoreen espezifikokoak.

7.2.- Gizarte Kontseiluak, Gobernu Kontseiluaren proposamenez, gehigarriko ordainsari osagarriak esleituko dizkie irakasle eta ikertzaileei banan-banan, banakako erabakiak emanez, Unibasq-ek bere txostenean (ikus laugarren oinarria) irakasle eta ikertzaile bakoitza kokatu duen maila eta tartearen

arabera. Erabaki horri, bestalde, Unibasq-ek egindako ebaluazioa erantsiko zaio. Erabaki horien aurka, interesatuek aukerako berraztertze errekurtoa jarri ahal izango dute, jakinarazpena egiten zaienetik hilabeteko epean; bestela, zuzenean, haien aurka egin dezakete administrazioarekiko auzien jurisdikzioan bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Zortzigarrena.– Jakinarazpena

Aurreko oinarrian esandakoari kalterik egin gabe, behin gehigarritzko ordainsari osagarrien esleipena Gizarte Kontseiluak onartuta, posta elektronikoko korporatiboaren bidez, interesdunei jakinaraziko zaie zer tarte lortu duten eta zer esteketan izango duten eskuragarri Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak egindako txostena.

Bederatzigarrena.– Ondorio ekonomikoak

Merezimenduen ebaluazioa eta osagarrien esleipena ebaluazioaren hurrengo urtean hasiko dira ondorio ekonomikoak izaten, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen gehigarritzko ordainsari-osagarriei buruzko 209/2006 Dekretuko 10. artikuluari jarraiki, zeina urriaren 17ko 64/2011 Dekretuaren bidez aldatu baitzen.

Hamargarrena.– C mailako gehigarritzko ordainsari osagarrietarako oinarriak.

10.1.- Helburua

10.1.1.- C mailak, Euskal Herriko Unibertsitatean egindako jardun profesionala saritzen duenak, bi tarte ditu:

- C1 tarte. Hau eskuratzeko, hiru urteko lotura izatea egiaztatu behar da Euskal Herriko Unibertsitatearekin.
- C2 tarte. Hau eskuratzeko, zazpi urteko lotura izatea egiaztatu behar da Euskal Herriko Unibertsitatearekin.

10.1.2.- Zenbaketa egiteko, kontuan hartuko da zer zerbitzu egin diren unibertsitatean 2022ko abenduaren 31ra arte. Antzintasuna UPV/EHUK egiaztatuko du ofizioz.

10.1.3.- Aipatutako denbora hori zenbatzerakoan, jarduneko zerbitzutzat hartuko dira zerbitzu bereziak eta seme-alabak zaintzeagatiko eszedentziak, familia zaintzeko eszedentziak eta genero indarkeriaren biktimak diren funtzionarioen lehen sei hilabeteko eszedentziak edo, lan kontratudun irakasle eta ikertzaileen kasuan, antzeko egoerak.

10.2.- Unibertsitatean egindako jardun profesionala aitor dakien lehen aldiz ebaluazioa eskatzen dutenek aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Jardun profesionala saritzen duten C1 eta C2 mailak lortzeko ebaluaziora lehen aldiz aurkezten direnek dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Deialdi honetan I. eranskin moduan dagoen eskabide-orria.
- Saileko Kontseiluaren txostena, 2.1 ereduaren arabera egina. Honako hauek jasoko ditu:
 - Irakaslanari buruzko txosten negatiborik ez egotea, hau da, betebeharrak formalei buruzko ez-betetzerik ez egotea (tutoretzak, eskola emateak, akten epeak, eta abar).

- Irakaslanari buruzko inkestak sistematikoki betetzea; balioespen negatibo errepikaturik ez egotea.

10.3.- Gehigarritzko ordainsari osagarriak eskuratzeko ebaluazioetara aurretik aurkeztu direnek aurkeztu beharreko dokumentuak:

Jardun profesionala saritzen duten C1 eta C2 mailak lortzeko ebaluaziora bigarren aldiz aurkezten direnek dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Deialdi honetan I. eranskin moduan dagoen eskabide-orria.
- Saileko Kontseiluaren txosten positiboa, arrazoitua eta argumentatua, 2.2 ereduaren arabera egina. Honako hauek izango ditu oinarri:
 - Irakasleak bere lanari buruzko txosten negatiborik ez egotea.
 - Irakaslanari buruzko inkestak sistematikoki bete izana, ahal den guztietan behintzat, eta halakoetan balioespen negatibo errepikaturik ez izatea.
 - Tutoretzak bete direla egiaztatzeko ikuskaritzak egindako txostenak.
 - Irakasleak bere jardueraz egindako txostena.
 - Irakasleak egindako ikerlanak eta ezagutzak transferitzeko jarduerak.

10.4.- Nor dagoen txostena aurkeztetik salbuetsita

Kasu hauetan ez da beharrezkoa izango aurreko bi ataletan aipatutako txostena aurkeztea:

- Irakasleak ohiko irakaskuntzatik salbuetsita daudenean edo aldi batez egon direnean, guztiz edo zati batean, kargu akademikoak betetzeagatik edo liberatuta egoteagatik (liberazio sindikala, euskara ikastekoa, sabbatikoa, irakaskuntzaren eta ikerketaren arloan eguneratzekoa, eta abar). Kasu hauetan, beharrezkoa izango da interesdunak egiaztatzea zergatik egon den irakaskuntzatik kanpo.
- Langileak zerbitzu bereziak ematen, seme-alabak zaintzeko eszedentzian edo, irakasle eta ikertzaile kontratatuen kasuan, antzeko egoeretan egon direnean; kasu horietan, beharrezkoa izango da interesdunak egiaztatzea zergatik egon den ohiko irakaskuntzatik kanpo.

10.5.- Ikertzaileek ebaluaziorako aurkeztu beharreko dokumentazioa

- Deialdi honetan I. eranskin moduan dagoen eskabide-orria.
- Ikertzailea atxikita dagoen Saileko Kontseiluak egindako aldeko txostena, 2.3 ereduaren arabera egina. Bertan egiaztatuko da interesatuak bere betebeharrak bete dituela.

Hamaikagarrena.– B eta A mailetako gehigarritzko ordainsari osagarriak eskatzeko oinarriak.

11.1.- Helburua

11.1.1- B mailak, hau da, kalitatea eta etengabeko hobekuntza saritzen dituenak, hiru tarte ditu:

- B1 maila. Tarte hau lortzeko, baldintza hauek bete beharko dira: gutxienez bost urteko antzintasuna izatea Euskal Herriko Unibertsitatean, eta gainera C1 tarte eta 25 puntu izatea.
- B2 maila. Maila hori lortzeko, baldintza hauek bete beharko dira gutxienez: hamar urteko antzintasuna izatea, doktorea izatea, eta C1 eta C2 tarteak eta 50 puntu izatea.
- B3 maila. Maila hori lortzeko, baldintza hauek bete beharko dira: hamar urteko antzintasuna izatea, doktorea izatea, eta C1 eta C2 tarteak eta 75 puntu izatea.

11.1.2.- A mailak, hau da, bikaintasuna saritzen duenak, bi tarte ditu:

- A1 maila. Maila hori lortzeko, baldintza hauek bete beharko dira: hamabost urteko antzintasuna izatea, doktorea izatea, eta C1 eta C2 tarteak eta gutxienez 90 puntu izatea.
- A2 maila. Maila hori lortzeko, baldintza hauek bete beharko dira: hamabost urteko antzintasuna izatea, doktorea izatea, eta C1 eta C2 tarteak eta gutxienez 90 puntu izatea.

11.1.3- Zenbaketa egiteko, kontuan hartuko dira 2022ko abenduaren 31ra arte egindako zerbitzuak. Antzintasuna UPV/EHUK egiaztatuko du ofizioz.

11.1.4- Aipatutako denbora hori zenbatzerakoan, jarduneko zerbitzutzat hartuko dira zerbitzu bereziak eta seme-alabak zaintzeko eszedentziak, familia zaintzeko eszedentziak eta genero indarkeriaren biktimak diren funtzionarioen lehen sei hilabeteko eszedentziak edo, irakasle eta ikertzaile kontratatuen kasuan, antzeko egoerak.

11.1.5.- Lehen aldiz ebaluaziora aurkeztu direnek beren bizitza akademiko osoko merezimenduak alegatu ahal izango dituzte, 2022ko abenduaren 31ra arte. Aurretik ebaluaziora aurkeztu direnek aurkeztu ahal izango dituzte ebaluazio horretatik 2022ko abenduaren 31ra arte.

11.1.6.- Eskariarekin batera, merezimenduen egiaztagiria aurkeztu beharko dira, 1.1 oinarrian aipatutako protokoloan esaten den legez.

11.2.- Ebaluazio berri bat eskatu nahi dutenek edo lehen aldiz ebaluaziora aurkeztu direnek aurkeztu beharreko dokumentazioa.

- Deialdi honetan II. eranskin moduan dagoen eskabide-orria.
-
- B2, B3, A1 eta A2 tarteetarako besterik ez: beste unibertsitate edo ikergune batzuetan — edozelako lotura laboral, estatutario edo administratiborekin— egindako irakaskuntza, ikerketa eta jakintzaren transferentziako zerbitzuak edo kudeaketa zerbitzuak egiaztatzea. Bakarrik aztertuko da eta, bere kasuan, onartuko da ebaluazioa B2 trametik aurrera eskatzen bada eta UPV/EHUK ez badu 15 urtetik gorako antzintasuna aitortu.

Hamabigarrena.– Unibertsitate-eskolako irakasle titularrentzako gehigarritzako ordainsari osagarria

12.1.- Helburua

12.1.1.–Unibertsitate eskoletako irakasle titularrek, doktore izan ez eta 10 urteko antzintasuna badute, gehigarritzako ordainsari osagarria lortzeko eskubidea izango dute ebaluazioan, baldin eta, gutxienez, 50

puntu lortzen badute; edo beste gehigarritzko ordainsari osagarria lortzeko eskubidea izango dute ebaluazioan, baldin eta, gutxienez, 75 puntu lortzen badute.

12.1.2.- Zenbaketa egiteko, kontuan hartuko dira 2022ko abenduaren 31ra arte egindako zerbitzuak. Antzintasuna UPV/EHUK egiaztatuko du ofizioz.

12.1.3.- Aipatutako denbora hori zenbatzerakoan, jarduneko zerbitzutzat hartuko dira zerbitzu bereziak eta seme-alabak zaintzeagatiko eszedentziak familia zaintzeko eszedentziak eta genero indarkeriaren biktimak diren funtzionarioen lehen sei hilabeteko eszedentziak edo, lan kontratudun irakasle eta ikertzaileen kasuan, antzeko egoerak.

12.1.4.- Ebaluaziora lehen aldiz aurkezten direnek beren bizitza akademiko osoko merezimenduak alegatu ahal izango dituzte, 2022ko abenduaren 31ra arte. Aurretik ebaluaziora aurkeztu direnek, berriz, aurkeztu ahal izango dituzte ebaluazio horretatik 2022ko abenduaren 31ra arte.

12.1.5.- Eskariarekin batera, merezimenduen egiaztagiriak aurkeztu beharko dira, 1.1 oinarrian aipatutako protokoloan esaten den legez.

12.2.- Ebaluaziorako behar den dokumentazioa

- Deialdi honetan III. eranskin moduan dagoen eskabide-orria.
- Beste unibertsitate edo ikergune batzuetan —edo zelako lotura laboral, estatutario edo administratiborekin— egindako irakaskuntza, ikerketa eta jakintzaren transferentziako zerbitzuak edo kudeaketa-zerbitzuak egiaztatzea. Soilik aztertu eta, bere kasuan, onartuko da, baldin eta eskatzen bada unibertsitate-eskolako irakasle titularrentzako gehigarritzko ordainsari osagarria lortzeko ebaluazioa eta UPV/EHUK ez badu 15 urtetik gorako antzintasuna aitortu.

Hamahirugarrena.— 2015koaren aurreko deialdietan lortutako tarteen egonkortasuna

2015. urteko deialdia baino lehenagokoetan gehigarritzko ordainsari osagarriak lortu zutenek ez bazuten aukerarik izan 2015, 2016, 2017, 2018, 2019, 2020 edo 2021. urteko deialdietara aurkezteko, salbuespen modura, aurtengo deialdian eska dezakete osagarri horien finkotasuna. Horretarako, IV. eranskina bidali beharko dute, ondo beteta.

Hamalaugarrena.— Euskal Herriko Unibertsitatea adskripzio-zentro izan duten deialdi ofizialeko beka.

Deialdi honetako tarte eta mailak ebaluatzeko eskatutako urteak zenbatzeko, kontuan hartuko da baita beka ofizialekin emandako denbora ere; betiere, unibertsitate honetako zentzoren batean atxikita egon bada onuraduna (beka ofizialtzat hartuko dira UPV/EHUK, Eusko Jaurlaritzak edo Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak deitutakoak). Behin graduatuak, prestakuntza jarduerak eta espezializazio zientifiko eta teknikoak burutzeko ematen diren beka dira hemen aintzat hartzen direnak; hain zuzen ere, prestakuntzarako pertsonal ikertzaile baldintza ematen dutenak.

Hamabosgarrena.— Eskuordetza

Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordearen esku uzten dira deialdia aurrera ateratzeko beharrezkoak diren izapide guztiak, salbu Gizarte Kontseiluari aurkeztu behar zaion gehigarritzko ordainsari osagarrien esleipen-proposamena.

2023ko irailaren 11, astelehena

Eta, era berean, Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordearen esku uzten da eredu normalizatuen onarpena, eskaerena zein deialdiaren gestio egokirako beharrezkoak diren gainerako guztiena, kontuan izanda deialdia modu automatizatuan izapidetuko dela.

ERANSKINAK

Deialdiaren hamargarren, hamaikagarren, hamabigarren eta hamahirugarren oinarrietan aipatzen diren I., II., III. eta IV. eranskinak eskuragarri egongo dira aplikazio informatikoan, zeinetan nahitaez egin behar baita eskaria.